HIRIGINTZA I (3. maila)

2009-2010 ikasturteko 2. lauhilekoko 4. ariketa

BIDE-SARE ESKEMA BERRIAREN PROPOSAMENA

Donostiako Altza auzoko Auditz-Akular-Landarro izeneko eremurako indarrean dagoen plangintzaren azterketa eta kritika egin izan ondoren, eta ateratako ondorioetan oinarrituta, **AL-24 Auditz-Akular** sektore guztirako bide-sare eskema berriaren proposamena egingo da, taldeka. Horretarako, plano bat emango da, din A-1 tamainakoa.

Bide-sare eskema horretan, sistema orokorreko bidea(k) zein tokikoak antolatuko dira. Tokikoak, bakarrik AL-24 sektorekoak. Hurrengo ariketetan, indarrean dagoen Plan Partzialaren alternatiba bat proposatuko du talde bakoitzak, beraz, bide-sare berriak jada onetsita dagoen Plan Partzialak aurreikusten dituen hirigintza-parametro berdinak (eraikigarritasun berdina) asetu beharko ditu.

Gogoratu eremua ez dela laua. Horregatik, bide-sare eskema berria ezartzeko beharrezkoak diren lur-mugimenduak adieraziko dira, egungo kotak eta etorkizuneko sestrak adieraziz. Indarrean dagoen Plan Partzialeko adierazpen mota berdina erabil daiteke (E agiriko 6. eta 8. planoak).

Planoaren eskala talde bakoitzak finkatuko du. Paperean (din A-1 formatuan, tolestu gabe; ordenagailuz egiten bada, A-3 formatuan inprimitu daiteke, baldin eta CD-an din A-1 formatuan badago) zein CD-an (.pdf edo .jpg formatuan) emango da, **apirilaren 13**ko 14:30ak baino lehenago.

Gasteizen, 2010eko martxoaren 18an.

Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño